

Kudeaketa
Aurreratuaren bidezko
enpresa-
lehiakortasunaren
hobekuntza



INNOBIDEAK-KUDEABIDE





TESTUINGURUA

Enpresen lehiakortasunaren hobekuntza estrategia desberdineko konbinazioa eta lan metodologiengatik, kudeaketa, salmenta-ekoizpena, etab. garatzen da, teknologia eta hornikuntza arloetan, kudeaketako berrikuntzarekin konbinatuz.

Enpresek, gero eta gehiago, beren tamaina kontutan hartu gabe, bere ekoizte-prozesuen digitalizazioa, eraginkortasun energetikora zuzendutako hobekuntzetako sartzea, merkatu berrietara sartzea, fabrikako banaketa eta fabrikazio-prozesuak hobetzea, etab. bezalako kontuei ekitea beharrezkoa da

Teknologia digitalen eta IKTetan sostengatzen diren beste teknologia batzuen sarrerak (4.0 Industria) enpresa inguruneetako negozio ereduetan, fabrikazio prozesuetan eta antolaketan eraldaketa dakarte, zeinak, gainera, etengabeko eboluzioan daude.

Ekimen eta proiektu guztietan elementu bateratu bat dago: KUDEAKETA eraginkorra. INNOBIDEAK-Kudeabidek enpresa-kudeaketa hobetzeari bideratutako proiektuen garapenean laguntzen du, baita Kudeaketa Aurreratuko Ereduan jasotako jarduketan arabera, erakundeetako digitalizazioaren garapenean lagunduz.

INNOBIDEAK - Kudeabide enpreseei kudeaketaren hobekuntza prozesu nagusietan laguntzen die aholkuen zein laguntza ekonomikoen bidez.

→ **Helburua**

Euskal enpresen lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea, kudeaketa aurreratuaren metodologiak, tresnak eta printzipioen aplikazioan lagunduz, hasierako kontraste baten bidez, eta proiektu pilotuak zein/edo finkatze-proiektuak garatuz.

Programa hau Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera, eta EUSKALIT-en lankidetzaz, garatzen da.

→ **Nork hartu dezake parte?**

Erauzteko, eraldatzeko, ekoizteko eta/edo zerbitzu teknikoetako jarduerak egiten dituzten 5 langile edo gehiagoko enpresak, beren ekoizpen-prozesuarekin lotutakoak, eta informazio-eta-komunikazio-gizartearen arloko konpainiak.

JEZ eskudunen xehetasuna www.kudeabide.com web orrian dago eskuragarri.



Programaren faseak

1 FASEA. KONTRASTEAREN ETA EKINTZA PLANA

Kudeaketa Aurreratuaren Ereduari so eginez Kokatze Kontrastea egin beharko da, Euskaliten eta Ebaluatzaileen Klubeko kide diren enpresa-zuzendari kudeaketan adituak diren pertsonen laguntzaz.

50 langile edo gehiagoko enpresek, Kontrastearen ordean, **Kudeaketa Diagnostiko baliokide** bat aurkeztu ahal izango dute.

Kontrastea egin eta gero, enpresak Ekintza Plana (eredu estandar gisa) diseinatu beharko dute, non kudeaketaren hobekuntzara bideratutako ekintza/proiektu nagusiak nabarmenaduko dira.

2018ko NOBEDADEAK

Hasierako Kontrastea bi deialdiko balioa izango du, gainera han bertan kudeaketaren hobekuntzarako arloak jasoko dira enpresak Kudeabide lerroan jarraitzeko izapideak ezarriko dira, proiektu pilotu baten eskaeraren bidez (2A), eta/edo finkapen proiektu baten bitartez (2B). Denboraldi haue igaro eta gero, oraindik egin ez duten enpresek, “Kontrastearen Eguneratzea” eskatu beharko dute www.kudeabide.com webgunearen bitartez.

Horrez gain, egitasmoan 4 urte daramaten enpresek, “Kontrastearen Berrikuntza” eskatu beharko dute. Kontrastea berritzeko prozesua hasierako kontrastearen antzekoa da, azkarragoa eta zehatzagoa. Enpresak hasierako hausnarketa egiten du berriz ere (bere egoerarik eguneratuenean eta aurrez egindako kontrasteetan oinarrituz), indarguneak eta hobekuntza arloak identifikatuz. Ondoren, hausnarketa hori EUSKALITeko pertsonekin kontrastatzen da, enpresan bertan egiten den bilera batean.

Kontrastearen berritzea ezinbesteko baldintza da 50 lanpostu edo gutxiago duten enpresa guztientzat zeinek inguruabar hauetan daudenak (kontrastea duela lau deialdi eginda) eta egitasmoan parte hartzen jarraitu nahi izanez gero. 50 enplegu edo gehiago duten enpresentzat, prozesua hautazkoa da eta Kudeaketaren Diagnostiko Baliokide bat aurkeztuz parte hartzen jarraitu ahalko dute.

Kontrastea berritzeko eskaera www.kudeabide.com webgunearen bidez egiten da.

→ Programaren faseak

2 A FASEA. PROIEKTU PILOTUAK

Kudeaketa aurreratuko metodologiaren aplikazio praktikorako proiektu pilotuak gauzatzea, kontrastean hautemandako kudeaketa-esparru batean edo batzuetan oinarrituta. Metodologiak autoprestakuntza, aurrez aurreko saioak eta proiektu pilotuen osaera uztartzen ditu..

2B FASEA. KONTSOLIDAZIO-PROIEKTUAK

Lehia-hobekuntzako proiektuak gauzatzea, **kudeaketa aurreratuko praktika kontsolidatuta**. Proiektu horietara bideratutako diru-laguntzak SPRIren (50 langile edo gehiagoko enpresentzat) eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien (5 eta 49 langile arteko enpresentzat) deialdi publikoen mende daude.

2014-2017 denboraldian:

- ✓ 547 enpresek hasierako kontrastea egiten zuten eta 234 kontrasteak berritu zituzten.
- ✓ 164 enpresek guztira 284 heziketa-akzio modulu egin zituzten.
- ✓ 740 enpresek kudeaketa kontsolidazio-proiektuak eskatu zituzten, eta horietatik 581 onartu ziren (eskatutako proiektuen %78,51-a)



Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kudeaketa urreratura bideraturiko 6 elementuetako batekin edo batzuekin lotutako proiektuak, Kudeaketa Aurreratuko Eredua kontutan hartuz:

- Estrategia.
- Bezeroak.
- Pertsonak.
- Gizartea.
- Berrikuntza.
- Emaitzak.

**Enpresa-bikaintasunerantz
kudeaketa aurreratuaren bitartez**



Diru-laguntzak

Kontrasteak (Hasierakoak, Eguneratzeak, Berritzeak):
Enpresarako kosturik gabe.

Proiektu pilotuak: Oinarrizko-moduluentzako %75 eta %60 modulu-
Aurreratuentzako diru laguntzak.

Sendotze proiektuak: SPRI eta Foru Aldundiek argitaratutako
deialdien arabera diru-laguntzak.



Eskaerak egiteko epea

- Kontrasteak ((**Hasierakoak, Eguneratzeak, Berritzeak**): : 2018ko martxoaren 1etik aurrera.
- Proiektu pilotuak: 2018ko martxoaren 1etik aurrera.
- Kontsolidazio-proiektuak: SPRI eta Foru Aldundien diru-laguntza deialdien arabera.

Informazioa eta eskaerak:
www.kudeabide.com

